

Sanignazioak • Algorta

Rikardo Otxoa gogoan jaietan

San Ignazioko Getxoko Nazioarteko Zirkuitua gaur egingo dute, eta hemendik aurrera Rikardo Otxoaren izena eramango du

Veronica Muñoz | ALGORTA

Getxoko Nazioarteko Zirkuitua egingo dute gaur herriko kaleetatik, Algortako jaien barruan. Ricardo Otxoaren Oroimenezkoa izena jarri diote txirrindularitza lasterketari. Orain dela gutxi hildako txirrindulari berangarraren izena jarriko diote proba horri hemendik aurrera.

Punta Galea txirrindulari elkartearen ibili ziren urte askotan Ricardo Otxoa eta anaia Javier, eta txirrindulari biek lotura handia izan dute beti Getxorekin. Horregatik, txirrindulariari omenaldia egitea erabaki dute Punta Galeakoek, lasterketari bere izena jarritz.

Lasterketa antolatzen duten 56. aldia da aurtengoa. Aurreko urteetan bezala, lasterketa herri barruan egingo dute, azkenengo aldiz seguruenik, eta goizeko 09:00etan hasiko da. Aldaketa batzuk izango dira ibilbidean, aurreko urteekin alderatuta; txi-

LOTURA GETXOREKIN

Rikardo Otxoa eta anaia Javier urte askotan ibili ziren Punta Galea elkartearen, eta Getxorekin lotura handia izan zuten

rrindulariak ez dira Aixerrotatik Galeara igaroko, errepide hori itxita dagoelako, bertan obrak egiten ari direla eta. Horren ordez, Aixerrotatik Bentara joango da ibilbidea.

Arratsaldean Getxoko estropadak izango dira, orain dela 23 urtetik Algortako jaietan ohitura denez. Jende asko bilduko da dudarik gabe Abrako ertzetan, 18:30etik aurrera, traineruak ikusi ahal izateko. Horrez gain, gaur ere adin guztietako jendearentzat izango dira ekitaldiak: suak, kontzertuak, dantzaldiak, bertsolariak eta abar eta abar.

ENRIQUE NOYA, 'KINI' JAI BATZORDEKO BOZERAMAILEA

«Inoiz baino eguneko ekitaldi gehiago prestatu ditugu, parte-hartzea zabaltzeko»

Veronica Muñoz | ALGORTA

Kinik bost urte daroa Algortako jai batzordean lanean. Urteotan egindako lanarekin poz-pez dagoen arren, aurtentan lan horretan ibiliko den azken urtea dela erabaki du algortarrak. Hori bai, lanaren lekukoa beste bati pasatu baino lehen, aurtengo jaientarako ere gogor lan egin du Algortako gazteak, adin guztietako herritarrentzako egitaraua prestatzeko helburuarekin.

■ **Jaiak prestatzen ibiltzen zaren azken urtea da...**

Bai, bost urte daroat lan hori egiten, eta dagoeneko lekukoa beste bati emateko ordua heldu dela iruditu zait.

■ **Eta zein da urteotako baltzea?**

Jaiak lanean igaro dituz azken bost urteotan, batzordean eta bertoko taberna batean. Beraz, ondo pasatzeko denbora asko ere ez dut izan. Hori bai, jaiak amaitzen direnean, dena ondo atera dela eta jendeak ondo pasatu duela ikustea gozamen handia da niretzat.

■ **Aurten zer edo zer berezia prestatu duzue?**

Bai, berritasunak izan dira, batez ere eguneko ekitaldiei



VERONICA MUNOZ

LAN GOGORRA, BAINA GUSTURA EGINDAKOA

«Gogor lan egin dut. Dena ondo ateratzen dela ikustea gozamen handia izan da niretzat»

garrantzi handiago eman nahi izan diegulako, azken urteotako joera jarraituz, herritarrek jaietan zuzenean parte har dezaten.

■ **Zein da jendeari gehien gustatzen zaion ekitaldia?**

Koadrilen jaitsieran jende asko biltzen da urtero, eta kontzertuek ere jende asko erakartzen dute, gazteak batez ere. Bigantzek ere arrakasta handia daukate, eta plaza egunero bete-beteta dago.

**PATSEKO
ETSEEA BI**

**Ondo pasa
jaietan!**

Tel.: 94 430 61 54
Sarrikobaso, 3 • ALGORTA



ALGORTAKO BULEGOA:
Telletxe 21-A / P.K.-48990
Tel.: 94 491 11 58 - 94 491 11 59 - 94 491 00 60
Faxa: 94 491 01 32

BILBOKO BULEGOA:
Colon de Larreategi 33 7 P.K.-48009
Tel.: 94 435 53 70
Faxa: 94 423 98 62

Zure aisialdirako
gida

www.Egunkaria.com/agenda

GOIZEAN

Gozoki eta Prentsa, gutxi danik ez prentsa.

PRENTSA - FRUITU LEHORRAK - ALDIZKARIAK - LITXARRERIAK
Urduña Mendatea, 1 - Tel.: 94 430 22 13 / Telletxe, 7 - Tel.: 94 460 02 88 - ALGORTA GETXO (Bizkaia)

**BEROGAILU ETA
ITURGINTZA
EZARKETAK**

Jaiekin!!

HIRURAK

Sarrikobaso, 15
Tel.: 94 430 53 46
ALGORTA

Kantxa Kizol moda

350 m2tan
Kirolerako guztia
denda barrian

Torrene, 4
48990 ALGORTA • © 94 491 18 82

**Scras. Julia Learra
MERTZERIA**

TRAJEAK, KAMISETAK ETA EUSKAL APAINGARRIAK
MOZORROAK, INAUTERIETAKO OSAGARRIAK ETA AGURRAK

Juan Bautista Zabala, 3
Tel.: 94 460 04 62
48990 ALGORTA



aldai

**TAPIZERIA
★
DEKORAZIOA**

Basagoiti etorbidea, 32
Telefonoa: 94 460 90 31
48990 ALGORTA

TAILERRA:
SALSIDU etorbidea, 35
Telefonoa: 94 430 33 68

**T
SARRIA**

HILETA ZERBITZUAK
TANATORIOA

Algortako etorbidea, 69.
ALGORTA

EGUNKARIAK

**Jaietan ondo
pasa!**

Algortako etorbidea, 78
Tel.: 94 491 27 34